

NORAY BIOINFORMATICS S.L.

sustatu:



SUSTATU ESPERIENTZIAK
EXPERIENCIAS SUSTATU

NORAYBIO informatikako enpresa da, 2002an sortua. Bizkaiko Parke Teknologian (Zamudio-Derio) kokaturik dago eta biozientzien, biomedikuntzaren eta bioteknologiaren sektoreentzat euskarria eta laguntza eskaintzen du, bioinformatikako tresna berriak garatuz. NorayBioren jardura nagusia biozientzien sektoreentzat software zehatza diseinatu, garatu eta ezartzekoa da. Izan ere, enpresa honek lortutako emaitza esperimentalak aztertzea eta interpretatzea erraztu nahi die azken erabiltzaileei. Orain dela gutxi sortu arren, hazkunde sendotua lortzeko bidean da, malgutasunerako, aldakortasunerako eta biozientzien merkatuko egungo eskaerei egokitzeko estrategiari jarraiki. Izan ere, merkatu horrek abiadura itzeleko eboluzioa du.

NorayBioren software produktua merkatu farmazeutikoarentzakoak eta bioteknologi eta biomedikuntza merkatuentzakoak dira bereziki, baita ospitaleetako, unibertsitateetako eta ikerketa-zentro publikoetako eta pribatuak ikertaldeentzakoak ere. **NorayBio** neurrirako softwarea garatzen du, halaber, biozientziekin zerikusia duten beste merkatu batzuentzat, hala nola, nekazaritzako elikagaien eta ingurumenaren inguruko merkatuentzat. Bazkunak kanpo-merkatuetan egoteari faktore estrategikoa deritza. Horregatik, 2005ean Europako mailako banaketa-akordioa lortu du produktu bioteknologikoak sektore farmazeutikoari banatzen espezializaturiko frantziar bazkuna den Tebu-Bio-rekin, eta, baita, Madrilgo eta Andaluziako merkataritza-agenteeekin. Gaur egun, Estatu Batuetako enprekin merkataritza-harremanak ditu datozten urteetan merkatu amerikarrean sartzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak **SUSTATU** programaren bitartez lagundu zigen enpresaren hasierako unean, **NorayBio** IZARTEK Bizkaiko Parke Teknologikoko inkubagailuan bi sustatzailek bakarrik osatzen zutenean. Konfiantza, tutoretza eta **SUSTATU** Bideberri eta **SUSTATU** Kide programen bitarteko ekonomi laguntza, eta Enpresa Proiekturik Onenari **SUSTATU** 2002 saria ematea, **NorayBioren** enpresa-proiektuarentzako behin-betiko laguntzak izan ziren.

(Galdera-sortari Julio Font **NorayBio**ko zuzendari nagusiak erantzun dio)

Deitu eta hitz egingo dugu
Llama y hablamos

944 068 038
www.programasustatu.com



Bizkaiko Foru
Aldundia

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Innovación
y Promoción Económica

NORAYBIO es una empresa informática constituida en el año 2002 y situada en el Parque Tecnológico de Bizkaia (Zamudio-Derio) que ofrece soporte y apoyo para los sectores de las biociencias, la biomedicina y la biotecnología, mediante el desarrollo de nuevas herramientas bioinformáticas. La actividad principal de NorayBio está dirigida al diseño, desarrollo e implantación de software específico para el sector de las biociencias, que facilite al usuario final el análisis e interpretación de los resultados experimentales obtenidos. A pesar de su juventud, siguiendo una estrategia de flexibilidad, versatilidad y adaptación a las exigencias actuales de un mercado como el de las biociencias, que evoluciona a una velocidad vertiginosa, la empresa está obteniendo un crecimiento consolidado.

Los productos software de **NorayBio** están dirigidos principalmente a los mercados farmacéutico, biotecnológico y de biomedicina, así como a grupos de investigación en hospitales, universidades y centros públicos/privados de investigación. **NorayBio** también desarrolla software a medida para otros mercados relacionados con las biociencias como el agroalimentario y el medioambiental. La compañía contempla su presencia en los mercados exteriores como un factor estratégico. Por este motivo ha alcanzado en el año 2005 un acuerdo de distribución a nivel europeo con Tebu-Bio, compañía francesa especializada en la distribución de productos biotecnológicos al sector farmacéutico, así como con agentes comerciales en Madrid y Andalucía. En la actualidad también mantiene contactos comerciales con empresas de Estados Unidos para entrar en el mercado americano en los próximos años.

El Departamento de Promoción e Innovación Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, a través del programa **SUSTATU**, nos apoyó en el momento inicial de la empresa cuando **NorayBio** lo constituían tan sólo dos promotores en la incubadora IZARTEK del Parque Tecnológico de Bizkaia. La confianza, la tutoría y el apoyo económico a través de los programas **SUSTATU** Bideberri y **SUSTATU** Kide, así como la concesión del premio **SUSTATU** 2002 al Mejor Proyecto Empresarial, supusieron un espaldarazo definitivo para el proyecto empresarial de **NorayBio**.

(Contesta al cuestionario Julio Font, Director General de **NorayBio**)